

Ulibarri Euskaltegiaren helburua da bezeroak eta interes-taldeak guztiz asetzeari. Horretarako, etengabeko hobekuntzaren kultura gure proiektuaren oinarria bihurtu dugu. Erabaki hori euskararen ikaskuntza/irakaskuntzan, lan-esparruko hizkuntza normalizazioan zein materialgintzan islatzen da.

Hori abiapuntu harturik, honako irizpideak zehaztu ditugu:

- Gure konpromisoak dira gizarteak sorrarazten dituen aldaketa-beharrei erantzun dieten zerbitzu berritzaileak eskaintzea, teknologia-berrikuntza jorratzea eta irakaskuntza-metodologiaren berriztapenean lan egitea.
- Profesionaltasuna, konpromisoa eta laguntzeko jarrera dira gure langilearen balioak.
- Euskararen erakargarritasuna eta prestigioa sustatu nahi ditugu, baita erabilera zabaldu ere.
- Eguneratuta gaude Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zabalitzen dituen arau-aldaketetan.
- UNE-EN ISO 9001:2015 araua erreferentetzat hartu dugu, kudeaketa-sisteman etengabeko hobekuntza bermatzeko.
- Konpromiso irmoa dugu Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan legeak xedatutako aginduak betetzeko. Hala, sistematika jakina ezarri dugu ebaluazio sistematikoa burutzeko, plana definitzeko eta prebentzio-jarduerak garatzeko.
- Ulibarri Euskaltegiak legezko arauen eta arau etikoen betetzearekiko konpromisoa dauka; hori dela eta, Arrisku Penalen Prebentziorako plana definitu du.
- Ulibarri Euskaltegiak zuzeneko zein zeharkako diskriminaziorik ez duen kudeaketa sistema bermatu nahi du eta horretarako, berdintasun plana definitu du. Horrekin batera, sexu-jazarpenei aurre egiteko protokoloa zehaztu du.

Bilbon, 2022ko ekainaren 29an



Ulibarri
euskaltegia

Gardoki, 3 - 1 • Tel. 94 416 24 72
48008 BILBAO